

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ERAKUNDE AUTONOMOA

Luis Aramburu udal musika eskola

2025-2027rako lan-poltsak. Espezialitate guztiak

2024ko irailaren 30ean, Luis Aramburu udal musika eskolako Zuzendaritza Kontseiluak honako hau erabaki zuen:

Luis Aramburu udal musika eskolarekin kudeaketa-gomendiorako hitzarmena sinatu duten musika- eta dantza-ikastegietarako lan-poltsak sortzeko oinarri arautzaileak onestea.

Oinarriak onestek berekin dakar oinarriak osatzen dituzten eranskinak ere onestea:

1. eranskinak espezialitateak eta tituluak zerrendatzen ditu, eta 2. eranskinak kudeaketa-gomendioaren hitzarmena sinatu duten erakundeen berri ematen du. Azkenik, oinarrien ondoren, kudeaketa-gomendioaren testu osoa jasotzen da.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko martxoaren 25ean

Luis Aramburu eskolako zuzendaria

PEDRO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA

**LUIS ARAMBURU UDAL ESKOLAREKIN KUDEAKETA-
GOMENDIORAKO HITZARMENA SINATU DUTEN MUSIKA ETA
DANTZA IKASTEGIETARAKO LAN-POLTSAK SORTZEKO OINARRI
ARAUTZAILEAK**

Lehena.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Luis Aramburu Eskolan —Luis Aramburu tokiko erakunde autonomoa (TEA) musika-irakaskuntzako zentroa da— hainbat espezialitatetako irakasleen lan-poltsak sortzeko izangaiak hautatzea, aldi baterako langile-beharrak betetzearren, esaterako, lanpostuen titularrak aldi baterako ordezkatzeko, aldi baterako programak gauzatzeko, zereginak metatzen direnerako eta abarretarako, bai aipatutako tokiko erakunde autonomoan, bai horretarako lankidetzeta-hitzarmena sinatu duten musika-eskoletan.

Hautaketa-sistema merezimendu-lehiaketa izango da.

Deialdi honen ondorioz sortzen diren lan-poltsak zerrendak osatzeko hurrengo deialdia egin arte egongo dira indarrean, eta horretarako sinatutako lankidetzeta-hitzarmenari lotu zaion eskola bakoitzak bere kabuz kudeatuko ditu. Hitzarmena Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO), GAOn, NAOn eta BAOn argitaratuko da. Osatzeko prozesua amaitutakoan, zerrendak gaur egun indarrean dagoena ordezkatzeko du.

Deialdia egin duen TEAren eta erakunde laguntzaileen lan-eskaintzak dagokion espezialitatean hautatutako pertsonen zuzenduko zaizkie, merezimendu-lehiaketatik sortzen den lehentasun-ordenari jarraituz, baldin eta lanpostua edo eginkizuna betetzeko behar diren betekizun guztiak betetzen badituzte (nazionalitatea, titulazio profesionala edo goi-mailakoa, hizkuntza-eskakizuna, etab.) dagokion lanpostu-zerrendan edo, kasua bada, esleitu beharreko aldi baterako programan edo zereginen aurreikusitakoaren arabera.

Ateratzen den ordena zerrenda guztiei aplikatuko zaie. Aurrekoa gorabehera, ordena hori aldatu ahal izango da zerrendak arautzen dituzten araudiek horrekin lotuta ezartzen dutenaren arabera.

Beharrek irauten duten bitartean lan-poltsan izangaiak edukitzen jarraitu ahal izateko, ohiko epe bat irekiko da urteko lehen hiruhilekoan, interesdunek beren eskabideak aurkez ditzaten, eta ezohiko epe bat, zerrendak agortzen badira. Deialdi hori Gasteizko Udalaren webgunean argitaratuko da. Orobat, deialdiaren berri emateko iragarki bat argitaratuko da Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO). Ezarritako epearen barruan aurkeztutako eskabideak lan-poltsa arautzen duten oinarrien arabera baloratuko dira.

Lan-poltsan bigarren deialdi horien bidez sartzen diren pertsonak dagozkien zerrendetan sartuko dira, aldeztatik osatutako lan-poltsako kideen atzean, balorazio-prozesuan lortutako emaitzen ordenaren arabera.

Esleitutako lanpostuari edo zereginari dagozkion ordainsariak lan-eskaintza egiten duen erakundeak onartuko ditu.

Kontuan hartu behar da Euskadiko eta Nafarroako musika- eta dantza-eskoletan dauden lanpostu askoren balio-aniztasuna. Izangaiak zirkunstantzia hori aintzat hartu behar duete espezialitate bakoitzerako eskaerak egitean; izan ere, eskola bakoitzaren kudeaketa-arauak oinarri hartuta, litekeena da espezialitate batean baino gehiagotan egotea eskatzea egiten diren lan-eskaintzetara sartu ahal izateko.

Bigarrena.- *Datu pertsonalen tratamendua*

Hautaketa-prozesuan interesdun diren datu pertsonalak Luis Aramburu tokiko erakunde autonomoaren (TEA) erantzukizunpean tratatuko dira. Prozesua amaitutakoan, hitzarmena sinatu duten musika-eskolei lagako zaizkie. Eskabidean, interesdunek baimena eman behar duete beren datu pertsonalak erakunde sinatzaileei lagatzeko, aldi baterako langile-beharrak estaltzearren.

Datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako helburuarekin baino ez dira tratatuko: hautatzea eta lan-poltsan sartzea, eta eskatzen duten ikastetxei lagatzea aldi baterako ordezkapenak egiteko.

“Datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudi aplikagarriarekin bat etorritik, jakinarazten dizugu zure datuak Luis Aramburu Udala Musika Eskolaren titulartasuneko tratamendu-sisteman sartuko direla (IFK: G01169507; egoitza soziala: Hedegile kalea 108, 01001 Gasteiz, Araba). Jarraian, datu horiek jasotzeko helburuak, gordetzeko epeak eta oinarri legitimitatzaileak zehazten dira.

Hala behar duten tratamenduetarako, Luis Aramburu Udal Musika Eskolak egin asmo dituen lagapenen berri ere ematen da.

Tratamenduaren arduraduna

Nortasuna: Luis Aramburu Udal Musika Eskola IFZ: G01169507

Helbidea: Hedegile kalea 108, 01001 Gasteiz, Araba

Telefonoa: 945 161 688

E-posta: emmla.direccion@vitoria-gasteiz.org

Tratamenduaren helburua

Helburua: erakundeko lanpostuak betetzeko deialdi publikoekin lotutako datu pertsonalak kudeatu eta tratatzea. Bitartekoentzako lan-poltsa kudeatzea. Kontrol-organoek hautaketa-prozesuak gainbegiratzeko ekintzak.

Gordetzeko epea: prestazioa garatzen den bitartean eta 5 urte gehiago.

Legitimazioa:

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea.

DBEOren 6.1.b) artikulua: tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunak eskatuta kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.

DBEOren 6.1.c) artikulua: tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion lege-eginbeharra betetzeko.

DBEOren 9.2.a) artikulua: tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunak edo interesdunak lan-zuzenbidearen eta segurtasunaren eta gizarte-babesaren arloan dituen betebeharrak betetzeko eta eskubide espezifikoak egikaritzeko.

5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Datu-lagapena

Luis Aramburu Udal Musika Eskolaren eta titulartasun publiko eta pribatuko musika-eskolen arteko hitzarmena sinatu duten musika-eskolei.

Eskubideak

Datuen babesari buruz indarrean dagoen araudiak ematen dizkizun eskubideen arabera, zure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, haien tratamendua mugatzeko, ezabatzeko ("ahaztua izateko eskubidea"), eramateko eta haien tratamenduari aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, bai eta datu horiek tratatzeko emandako baimena ezeztatzeko eskubidea ere. Horretarako, aurretik adierazitako posta-helbidera bidali beharko duzu eskaera, eta inprimaki bat bidali helbide honetara: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/eu/pribatutasun-politika>.

Kontrol-agintaritza eskudunera jo ahal izango duzu egokitzat jotzen duzun erreklamazioa aurkezteko.

Luis Aramburu Udal Musika Eskolak jakinarazten du dokumentu hau sinatzearekin batera berriazko adostasuna adierazten duzula datuak lehen aipatutako helburuetarako tratatzeko."

Hirugarrena.- Izangaiek bete beharreko betekizunak

Deialdian onartuak izateko eta, hala badagokio, lehiaketan parte hartzeko, izangaiek betekizun hauek bete beharko dituzte:

1. Espainiako nazionalitatea izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 57. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.
2. 16 urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretirorako adinera iritsia ez izatea.
3. Eskatutako espezialitateko titulua/gaikuntza profesionala izatea edo hori lortzeko eskubideak ordainduta edukitzea. Atzerrian lortutako titulua izanez gero, Hezkuntza Ministerioak titulua aitortzeko emandako agindua edo homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.
4. Lanpostuek euskararen derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleituta badute, hori egiaztatzea.

5. Diziplina-espeditate baten bidez edozein administrazio publikotatik edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutariotatik berezita ez egotea, eta ebazpen judizial baten bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasuna erabatekoa edo berezia ez izatea funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko; lan-kontratudun langileen kasuan, betetzen zizuten eginkizunen antzekoak betetzeko, horrelakoetarako berezi edo desgaitu egin badute. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora sartzearagotziko duenik, hain zuzen.
6. Lanpostuen berezko zereginak normaltasunez betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

Laugarrena- Eskabideak aurkeztea, eta merezimenduak alegatzea eta egiaztatzea

Espezialitate bakoitzerako eskabideak www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak orriaren bidez aurkeztuko dira.

Eskabideak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau BOTOAN argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Eskabideak elektronikoki aurkeztuko dira, eta merezimenduak deklaratu eta egiaztatu aurreko urratsa izango da hori. Izena emateko eta merezimenduak aitortzeko eta egiaztatzeko prozedura:

1. urratsa: egoitza elektronikoko **izena ematea:** www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak (deialdiak)

2. urratsa: merezimenduak aitortzeko inprimakia betetzea (hautaketa-prozesuaren webgunean dago eskuragarri).

3. urratsa; emandako zerbitzuak adieraztea: Sartu www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak orrian ("Nire hautaketa-prozesuak"). Deialdian sartu, eta, horren barruan, "Nire merezimenduak" eta "Merezimendua gehitu" ataletara. Bi aukera daude:

- Banan-banan, hau da, kontratuz kontratu sartuz (Multzokatuta: EZ)
- Multzokatuta. egindako zerbitzuen ziurtagirian agertzen den lehen kontratuaren hasiera-data, azken kontratuaren amaiera-data eta dokumentuak ziurtatzen duen egun kopurua. (Multzokatuta: BAI)

4. urratsa. Agiriak igotzea. PDF dokumentu bakar batean honako hauek sartu behar dira:

- Egindako zerbitzuen ziurtagiriak.
- Lan-bizitza.
- Titulazioak, herritarren karpeta jasota ez badaude (<https://carpetaciudadana.gob.es/>)
- Euskararekin lotutakoak, Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan erregistratuta ez badaude (<https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>)

Parte hartzeko betekizunak eta, hala badagokio, alegatutako merezimenduak honela egiaztatuko dira:

- Identitatea eta nazionalitatea: eskabidea aurkezteko prozeduraren bidez, izapidetzeko identifikazio elektronikoa eskatzen denean.
- Euskara titulazioa/gaikuntza: eskabidea aurkezteak baimena ematen dio deialdia egin duen erakundeari horri buruzko kontsultak egiteko herritarren karpeta, salbu eta kontsulta-modalitate hori ezinezkoa bada; kasu horretan, egiaztapenak erantsi beharko dira.
- Desgaitasuna: desgaitasun-ziurtagiriaren bidez (1971/1999 Errege Dekretua, abenduaren 23koa).
- Lan-esperezia.
 - Deklaratzeko prozedura:
 - Sartu www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak web-orrian.
 - "Nire hautaketa-prozesuak" atalean sartu eta digitalki identifikatu.
 - Deialdian sartu.
 - Sartu "Nire merezimenduak" eta "Gehitu merezimendua" atalean.
 - Akreditazioa:
 - Lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandakoa, edo emandako zerbitzuen ziurtagiria (administrazioetan bakarrik).

Bosgarrena.- Izangaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Luis Aramburu Udal Eskolako organo eskudunak espezialitate bakoitzean onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendak onartuko ditu, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu.

Zerrenda horiek, baita epaimahai kalifikatzaileek egindako jakinarazpenak ere, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez jakinaraziko zaizkie interesdunei eta parte hartzen duten erakundeei : www.vitoria-gasteiz.org/procesosselectivos ("Nire hautaketa-prozesuak"). Argitaratzeko unean, abisua sortuko da posta elektroniko automatikoaren bidez, eta eskabidean emandako helbide elektronikora bidaliko da.

Interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute baztertzeara eragin duten akatsak edo omisioak zuzentzeko, edo zerrenda horren aurkako erreklamazioak aurkezteko, procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org helbide elektronikora idatziz. Erreklamazio horiek baliozkoak izango dira baldin eta eskabidean ondorio horietarako erregistratu den helbide elektronikotik bidaltzen badira, eta zuzen hartu dela bermatzen duen erantzuna jaso bada posta elektronikoz. Alegazioak edo erantzunak jaso izanaren baieztapena —bi noranzkoetan— ezinbestekoa da komunikazioa baliozkotzat jotzeko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendak automatikoki bihurtuko dira behin betiko. Erreklamaziorik bada, beste ebazpen baten bidez onartu edo ezetsiko dira. Ebazpen horren bidez, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrendak onartuko dira, eta goian adierazitako moduan argitaratuko dira.

Eskabidean atzematen diren egiteko errakuntzak edozein unetan zuzendu ahalko dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta. Ez dira egiteko errakuntzat hartuko merezimenduak eskabidean ez alegatzea edo merezimendu horien egiaztagiria eskabidean ez sartzea.

Seigarrena.- Dokumentazioa eta alegatutako merezimenduak egiaztatzea

Alegatutako merezimenduen zerrenda jaso beharko da eskabidean. Ikus 4. oinarriko prozedura.

Ez dira baloratuko bertan alegatutakoez bestelako merezimenduak, eta horiek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen eskuratutakoak izan beharko dute. Epaimahaiak ez ditu kontuan hartuko alegatutako merezimenduak, baldin eta eskatzen diren unean agiri bidez egiaztatzen ez badira.

Eskabidearekin batera alegatutako merezimenduen zerrenda aurkezten ez bada, ezin izango da zuzendu. Hori adierazteko inprimakia deialdi honen webgunean egongo da eskuragarri.

Eskatzaileek baimena ematen dute bai parte hartzeko betekizunak, bai alegatutako merezimenduak NISAEn (euskal administrazio publikoen artean eta administrazio horien eta Estatuko gainerako administrazioen artean datuak trukatzeko nodoa) kontsultatzeko. Baimenik eman ezean, dagozkion egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

Era berean, lan-esperientziagatiko merezimenduak alegatuz gero, eskabidearekin batera lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko dute, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana (esteka honetan dago eskuragarri: <https://bit.ly/3zdwCg8>).

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzen direnetik, eskatzaileek hilabeteko epea izango dute alegatutako dokumentazioa eta merezimenduak egiaztatzeko.

Balorazio Batzordeak edozein unetan eskatu ahal izango du dokumentazio gehigarria aurkezteko, parte hartzeko betekizunak eta, behar izanez gero, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko.

Epaimahai kalifikatzaileak —edo, ondoren, ordezkapen-kontratu bat formalizatzean, eskola edo udal kontratatzaileak— parte hartzeko betekizunak agiri bidez egiaztatzeko eskatu ahal izango du, baita alegatutako merezimenduak egiaztatzeko ere, hala badagokio.

Zazpigarrena.- Espezialitateen arabeko balorazio-batzordeak

- A) Balorazio-batzorde bat eratuko da espezialitate bakoitzerako.
- B) Balorazio-batzorde bakoitzak kide hauek izango ditu, eta guztiek izango dute hitza eta botoa:

Lehendakaria:

Luis Aramburu Eskola tokiko erakunde autonomoko zuzendaria edo hark eskuordetzen dituen enplegatu publikoak izango dira batzordeko buru.

Batzordekideak:

Luis Aramburu Eskola TEAko hiru enplegatu publiko edo horretarako lankidetzaz-hitzarmena sinatu duten udaletako hiru enplegatu.

Dagokion espezialitateko titulazioa izan beharko dute, edo antzeko espezialitateetakoak.

Idazkaria:

Luis Aramburu Eskola TEAko ikasketa-burua edo jarduera-burua (ordezkoa) izango da idazkaria. Hitza eta botoa izango ditu.

Horietaz gain, dagozkien ordezkoei osatuko dute batzordea, eta horiek titularrekin batera izendatu beharko dira.

- C) Batzordeko kideek uko egin beharko diote horretan parte hartzeari, eta errefusatu egin ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, edo deialdi hau argitaratu aurreko bost urteetan hautaprobetarako izangaiak prestatzeko lanak egin badituzte.
- D) Batzordean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua egongo da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.6 artikulua ezarritakoari jarraituz. Era berean, parte-hartzaileak izendatzerakoan ahalegina egingo da izendatutako pertsona guztiak elebidunak izan daitezen.
- E) Balorazio-batzordeen jarduna Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen kide antzeko organoetara buruz jasotako xedapenetara egokituko da beti.
- F) Batzordeak ezin izango dira eratu, ezta aritu ere, baldin eta batzordekide titularren edo ordezkoren erdia baino gehiago ez badago; nolahi ere, batzordeburua eta idazkaria bertan egon beharko dira.
- G) Erabakiak bertaraturakoen botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketa gertatuz gero, lehendakari diharduenaren kalitatezko botoak ebatziko du.
- H) Batzordeek autonomia funtzional osoz jardungo dute, prozeduraren legezkotasuna zainduz, eta beren objektibotasuna bermatzeko ardura izango dute. Era berean, ordenamendu juridikoarekin bat etorri, oinarriak aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak ebatziko dituzte, eta lehiaketa behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartuko dituzte, oinarrietan aurrekusi gabeko kasuetarako hartu behar diren irizpideak ezarriz.
- I) Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, balorazio-batzordeek jakiten badute izangaien batek ez duela betetzen deialdi honetako betekizunen bat, interesdunari entzun ondoren, kanpoan uzteko proposatu beharko diote organo eskudunari, eta eskabidean adierazitako zehaztugabetasunen edo faltsutasunen berri eman.

Zortzigarrena.- Merezimendu-lehiaketa

Merezimenduen balorazioa (gehienez 30 puntu).

Merezimendu hauek baloratuko dira, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta, betiere seigarren oinarrian adierazitako epean eta moduan alegatu eta egiaztatuta badira.

1. Esperientzia profesionala

Esperientzia profesionala gehienez ere 20 punturekin baloratuko da.

a) Administrazio publikoan, musika- eta/edo dantza-ikastegietan egindako zerbitzuengatik, gehienez 20 puntu, hileko 0,20 puntu zenbatuta (0,0067 puntu eguneko).

b) Enpresa pribatuan, musika- eta/edo dantza-ikastegietan egindako lanagatik, gehienez 20 puntu, hileko 0,10 puntu zenbatuta (0,0033 puntu eguneko).

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Esperientzia profesionala Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako lan-bizitzaren txostenaren bidez egiaztatuko da (esteka honen bidez eskura daiteke: <https://bit.ly/3gqboCP>).

Ziurtagirian ez bada jasotzen eskatutako datuetakoren bat, dokumentazio gehigarriarekin osatu beharko da, behar den informazioa bermatzeko.

2. Titulazio akademikoa

Hautaketa-prozesuan onartua izatea gorabehera, titulazio akademiko jakin bat edukitzea ezinbestekoa izan daiteke lan-poltsako kideek lan-eskaintza bat eskuratu ahal izateko, kasuan kasuko entitateak lanposturako ezarritako betekizunen arabera.

Lehiaketaren ondorioetarako, titulazio akademikoak merezimendu gisa baloratuko dira, gehienez ere 10 punturekin, honela:

- a) Goi-mailako tituluak.
 - Lortu nahi den espezialitateko goi-mailako tituluak izateagatik: 5 puntu.
 - Musikarekin, dantzarekin eta/edo pedagogiarekin zuzenean lotutako beste espezialitate batzuetako goi-mailako tituluak izateagatik: 2 puntu titulu bakoitzeko (gehienez, 4 puntu).
- b) Irakasle-titulazioa. (66. urteko Planeko erdi-mailako tituluak).
 - Lortu nahi den espezialitateko irakasle-tituluak (66. planeko erdi-mailako tituluak) edo baliokidea izateagatik: 3 puntu.
 - Musikarekin, dantzarekin eta/edo pedagogiarekin zuzenean lotutako beste espezialitate batzuetako erdi-mailako tituluak izateagatik: puntu bat titulu bakoitzeko; gehienez 2 puntu.
- c) Musikarekin, dantzarekin eta/edo pedagogiarekin zuzenean lotutako espezialitateetako beste titulazio profesional batzuk.
 - LOGSEko erdi-mailako titulazioak eta LOEko titulazio profesionalak edo musikarekin, dantzarekin eta/edo pedagogiarekin zuzenean lotutako gaikuntza ofizialak (289/92 Dekretua) honela baloratuko dira: 0,5 puntu titulu bakoitzeko (gehienez, puntu bat).

Bederatzigarrena.- Euskararen ezagutza

Euskararen hizkuntza-eskakizuna, edo horren baliokidea den tituluak edo ziurtagiria izatea betekizuna izan daiteke lan-eskaintza bat eskuratzeko, dagokion entitateak lanposturako onesten dituen eskakizunen arabera.

Deialdi honen ondorioetarako, euskararen ezagutza honela baloratuko da:

- 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta edukitzeagatik: 6 puntu. Puntu guztien % 20.
- 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta edukitzeagatik: 4,5 puntu. Puntu guztien % 15.
- 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta edukitzeagatik: 3 puntu. Puntu guztien % 10.
- 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta edukitzeagatik: 1,5 puntu. Puntu guztien % 5.

Hizkuntza-eskakizun horiekin parekatuko dira 4. eranskinean agertzen diren tituluak eta ziurtagiriak, 297/2010 Dekretuan xedatutakoaren arabera —297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena (2010eko azaroaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari, 219. zenbakia)—.

Hamargarrena.- Balorazioaren behin-behineko emaitzak eta sailkapen-ordena

Merezimendu-lehiaketan dagokion espezialitatean lortutako puntuazioek osatuko dute izangai bakoitzaren kalifikazioa, eta horrek zehaztuko du izangaien lehentasun-ordena dagokion lan-poltsan, profil profesional espezifikoekin (goi-mailako musika titulazioa, 66ko planeko musika-irakaslea edo gaikuntza) eta hizkuntza-eskakizunekin (1., 2., 3. eta 4.) batera. Zerrenda bereziak egingo dira lanposturako hizkuntza-eskakizuna merezimendua edo nahitaezkoa den. Alderdi horiek hautaketa-prozesuan zehar egiaztatuko dira.

Puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauen arabera ezarriko da lehentasuna, hurrenez hurren:

- a) Onartuen zerrendetan sexu bateko hautagaien kopurua % 40tik beherakoa bada, sexu minoritarioko pertsonaren alde.
- b) Dagokion espezialitateko goi-mailako titulazioa duen pertsonaren alde.
- c) Administrazio publikoan espezialitatean esperientzia profesional handiena duenaren alde.
- d) Enpresan pribatuan espezialitatean irakasle esperientzia profesional handiena duenaren alde.
- e) Administraziooko organo eskudunak ehuneko 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa aitortu dion pertsonaren alde.

- f) Espezialitateko titulaziorik berriena egiaztatuta duen izangaiaren alde.
- g) Balorazioaren behin-behineko emaitzak eta hautagaiak lan-poltsetan sailkatzeko ordena Luis Aramburu Eskolako iragarki-taulan eta Gasteizko Udalaren webgunean argitaratuko dira. Halaber, lehenengo oinarrian aipatutako lankidetzaz-hitzarmena sinatu duten erakundeen webguneetan argitaratu ahal izango dira.

Hamaikagarrena.- Merezimendu-lehiaketaren behin betiko emaitzak

Erreklamazioak aztertu ondoren, halakorik bada, balorazio-batzordeek hautaketa-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratuko dituzte, eta dagokion proposamena egingo diote eskumena duen tokiko erakunde autonomoko organoari, espezialitate bakoitzeko lan-poltsak onar ditzan.

Hamabigarrena.- Betekizunak egiaztatzea

Hautatutako pertsonak, kontratatu aurretik, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Medikuziurtagiria:

Hautagaiari dagokion osasun-prestazio publikoen erakundeak emana, zereginak betetzeko gaitasun funtzionala duela eta zeregin hori eragozten duen gaixotasun edo muga fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena.

2. Zinpeko aitortpena edo hitzematea:

Zinpeko aitortpena edo hitzematea, adieraziz ez dutela diziplina-espediente bidez bereizi edo banandu autonomia-erkidegoetako edozein administrazio publikotako edo organo konstituzional edo estatutarioetako zerbitzuetatik, eta ez dutela ebazpen judicial baten bidez desgaitutza absolutu edo berezirik enplegu edo kargu publikoetarako, bereizi edo desgaitu duten funtzionario-kidegoan edo -eskalan sartzeko. Era berean, zinpeko aitortpena edo hitzematea, ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez dagoela adierazteko.

Spainiako nazionalitatea ez duenak zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko du, adierazteko ez dagoela desgaituta edo egoera baliokidean, eta ez duela ezarrita diziplina-zehapenik edo baliokiderik, bere estatuan enplegu publikora iristea eragozten dionik.

Sexu-izaerako delituen ziurtagiria. Nahitaezkoa da irakasle izateko. Informazio gehiago: www.mjjusticia.gob.es.

Izangairen batek dokumentazio hori aurkezten ez badu edo, dokumentazioa aztertuta, hirugarren oinarrian eskatutako betekizunetakoren bat betetzen ez duela ondoriotzatzen bada, ezin izango du lan-poltsetan parte hartu, edo dena delako enplegua lortu, eta haren jarduketa guztiak baliogabetu egingo dira, parte hartzeko eskaera faltsutzeagatik izan dezakeen erantzukizuna alde batera utzi gabe.

Arestian azaldutakoari kalterik egin gabe, dena delako erakundeak inori lan-eskaintza egiterakoan lan-poltsetan sartzeko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumenturen bat eguneratzeko eskatu ahal izango dio, baldin eta prozesua amaitu denetik enplegu-eskaintza egin arte igarotako denborak horretarako bide ematen duenean.

Era berean, hizkuntza ofiziala gaztelania ez duten estatuetako nazionalitatea duten hautagaiak hizkuntza horren ezagutza nahikoa dutela egiaztatzeko eskatu ahaliko die erakunde interesdunak, lan-eskaintza bat formalizatu aurretik.

Hamahirugarrena.- Gorabeherak

Balorazio-batzordearen esku geratuko da argitu beharrekoak argitzea eta hautaketa-prozesua behar bezala bideratzeko hartu beharreko erabakiak hartzea.

Oinarri hauetan aurreikusten ez denari dagokionez, hautaketa-prozesuek honako hauetan ezarritakoa bete beharko dute: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena; 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onartzen duena; eta Estatuko Administrazioaren zerbitzura dauden langileak sartzeko Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua, eta 861/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa.

Hamalagarrena.- Aurkaratzeak

Deialdia, deialdiaren oinarriak eta oinarriotatik eta balorazio-batzordeen jarduketatik eratorritako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduan eta kasuetan.

1. 1. ERANSKINA
ESPEZIALITATEAK

Familia	Espezialitatea	II., III. eta IV. mailatarako titulazioa	II. mailarako titulazioa	Aldi baterako programetarako titulazioa
Hari igurtzizko instrumentuak (II., III. eta IV. mailak)	Kontrabaxua***	1,2,3,4,5,6,7,8	1.,2.,3.,4.,5.,6.,7.,8.,9.,18.,20.	21,22,23,24
	Biola			
	Zango-biola			
	Biolina			
	Biolontxelo			
Zurezko haize-instrumentuak (II., III. eta IV. mailak)	Klarinetea			
	Fagota			
	Moko-txirula			
	Zeharkako txirula			
	Oboea			
Metalezko haize-instrumentuak (II., III. eta IV. mailak)	Saxofoia			
	Tronboia			
	Tronpa			
	Tronpeta			
Teklatu-instrumentuak (II., III. eta IV. mailak)	Tuba			
	Akordeioa			
	Klabea			
	Pianoa			
	Teklatu elektronikoa			
Perkusio-instrumentuak (II., III. eta IV. mailak)	Organoa			
	Perkusioa			
Hari pultsatuzko instrumentuak (II., III. eta IV. mailak)	Bateria			
	Harpa			
Hari pultsatuzko instrumentuak (II., III. eta IV. mailak)	Baxu elektrikoa			

Familia	Espezialitatea	II., III. eta IV. mailetarako titulazioa	II. mailarako titulazioa	Aldi baterako programetarako titulazioa
mailak)	Gitarra			
	Gitarra elektrikoa***			
	Errenazimentuko eta barrokoko hari pultsatuzko instrumentuak eta zia-instrumentuak			
Euskal jatorri tradizionaleko instrumentuak (II., III. eta IV. mailak)	Txistua			
	Alboka			
	Dultzaina			
	Panderoa			
	Txalaparta			
	Trikitixa			
Dantza espezialitateak (II., III. eta IV. mailak)	Euskal dantza			
	Dantza klasikoa			
	Dantza garaikidea			
	Beste dantza batzuk	9		
Kantu espezialitatea (II., III. eta IV. mailak)	Kantua	1,2 3,4 02 5,6		
	Kantu korala	6 7,8		
Beste instrumentu batzuk Musika-teknologia (II., III. eta IV. mailak)	Musika-ekoizpena eta interpretazio elektronikoa zuzenean		13	
Beste instrumentu eta lantegi batzuk (II., III. eta IV. mailak)	Beste kultura batzuetako instrumentuak		14	
	Tresna egokituak, desgaitasuna duten ikasleen integrazioa errazteko		15	
	Musikoterapia		16	
	Dantza terapia		17	

*** Kontrabaxua eta baxu elektrikoa kideko instrumentuak dira (familia berekoak, 7. XGaren arabera)

Familia	Espezialitatea	II., III. eta IV. mailatarako titulazioa	II. mailarako titulazioa	Aldi baterako programetarako titulazioa
1. mailako espezialitateak	Musika Hezkuntza Goiztiarra			
	Musika eta mugimendua	10,11,12,18,19,20		
	Musika eta gorputz adierazpena			
	Musika lantegia	1,2,3,4,5,6,7,8		
	Dantza lantegia			

Kodea	Eskatzen diren titulazioak	Maila
1	Interpretazioko goi-mailako titulua (631/2010 ED) edo Koreografia eta Interpretazioko goi-mailako titulua (632/2010 ED), dagokion espezialitatean	Meces 2
2	Pedagogiako goi-mailako titulua, dagokion espezialitatean (631/2010 eta 632/2010 errege dekretuak)	Meces 2
3	Instrumentuko goi-mailako titulua, dagokion espezialitatean (617/1995 ED) edo Koreografia eta Dantza Interpretatzeko Tekniketako goi-mailako titulua, dagokion espezialitatean (1463/1999 ED)	Meces 3
4	Pedagogiako goi-mailako titulua, dagokion espezialitatean (617/1995 ED eta 1463/1999 ED)	Meces 3
5	Irakasle-titulua, dagokion espezialitatean (2618/1966 Dekretua)	Meces 2
6	Goi-mailako irakasle-titulua, dagokion espezialitatean (2618/1966 Dekretua)	Meces 3
7	289/1992 gaikuntza, dagokion espezialitatean	---
8	64/2024 gaikuntza, dagokion espezialitatean	---
9	Gradua, beste dantza batzuetako prestakuntzarekin	Meces 2
10	Pedagogiako goi-mailako titulua, edozein espezialitatean (631/2010 ED eta 632/2010 ED)	Meces 2
11	Pedagogiako goi-mailako titulua, edozein espezialitatean (617/1995 ED eta 1463/1999 ED)	Meces 3
12	289/1992 gaikuntza, 1. mailakoa.	---
13	Gradua, musika-ekoizpenaren eta zuzeneko interpretazio elektronikoaren alorreko prestakuntzarekin	Meces 2
14	Gradua, beste kultura batzuetako instrumentuen alorreko prestakuntzarekin	Meces 2
15	Gradua, musika eta desgaitasunaren alorreko prestakuntzarekin	Meces 2
16	Gradua, musikoterapiaren alorreko prestakuntzarekin	Meces 2
17	Gradua, danza terapiaren alorreko prestakuntzarekin	Meces 2
1*	Interpretazioko goi-mailako titulua (631/2010 ED) edo Koreografia eta Interpretazioko goi-mailako titulua (632/2010 ED), familiako espezialitate batean	Meces 2
2*	Pedagogiako goi-mailako titulua, familiako espezialitate batean (631/2010 eta 632/2010 Errege Dekretuak)	Meces 2

Kodea	Eskatzen diren titulazioak	Maila
3*	Instrumentuko goi-mailako titulua, familiako espezialitate batean (617/1995 ED) edo Koreografia eta Dantza Interpretatzeko Tekniketako goi-mailako titulua, familiako espezialitate batean (1463/1999 ED)	Meces 3
4*	Instrumentuko goi-mailako titulua, familiako espezialitate batean (617/1995 ED) edo Koreografia eta Dantza Interpretatzeko Tekniketako goi-mailako titulua, familiako espezialitate batean (1463/1999 ED)	Meces 3
5*	Irakasle-titulua, dagokion familiako espezialitate batean (2618/1966 Dekretua)	Meces 2
6*	Goi-mailako irakasle-titulua, dagokion familiako espezialitate batean (2618/1966 Dekretua)	Meces 3
7*	289/1992 gaikuntza, familiako espezialitate batean	---
8*	64/2024 gaikuntza, familiako espezialitate batean	---
9*	Gradua, beste dantza batzuetako prestakuntzarekin, dantzako 2. mailako beste espezialitate batzuk eman ahal izango ditu.	Meces 2
18	Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako gradua, Musikako edo Dantzako titulazio profesionalarekin (8. XG)	Meces 2
19	Interpretazioko gradu-titulua (musika-espezialitateak) edo Koreografia eta Interpretazioko gradu-titulua (dantzako espezialitateak), gehi 150 orduetik gorako master edo graduondoko bat, arte-irakaskuntzetan, pedagogia edo didaktikan edo musika-irakaskuntza aktiboan	Meces 2
20	Beste espezialitate batzuetako gradu-titulua (konposizioa, zuzendaritza, sonologia...), gehi 150 orduetik gorako master edo graduondoko bat, arte-irakaskuntzetan, pedagogia edo didaktikan edo musika-irakaskuntza aktiboan	Meces 2
18*	Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako gradua, Musikako edo Dantzako titulazio profesionalarekin (8. XGa). 2. mailan, titulazio profesionala duen instrumentua bakarrik	Meces 2
20*	Musikako eta Dantzako edozein espezialitateko gradu-titulua, Musikako edo Dantzako titulazio profesionalarekin (9. XG). 2. mailan, titulazio profesionala duen instrumentua bakarrik	Meces 2
21	Dagokion espezialitateko titulu profesionala	---
22	Dagokion espezialitatean goi-mailako ikasketak egiten ari dela edo dagokion espezialitatean gutxienez ikasturte bat gainditu duela egiaztatzen duen agiria	---
23	Gradua, gehi dagokion espezialitateko musika-eskolako III. maila amaitu izanaren ziurtagiria	Meces 2
24	Gradua, dagokion espezialitateko 5. maila gaindituta	Meces 2
25	Lehen Hezkuntzako gradua	Meces 2
26	Haur Hezkuntzako gradua	Meces 2

2. 2. ERANSKINA

**HITZARMENA IZENPETU DUTEN ERAKUNDEAK
INSTITUCIONES FIRMANTES DEL CONVENIO**

AGURAIN MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música de Agurain
AMURRIO MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música de Amurrio
DULANTZI MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música de Alegría Dulantzi
URKABUSTAIZ MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música de Urkabustaitz
JOSE ANTONIO EGIA MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música Jose Antonio Egia de Bermeo
BILBAOMUSIKA ESKOLA	Bilbaomusika eskola
BARTOLOME ERTZILLA MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música Bartolomé Ertzilla de Durango
ERANDIO MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música de Erandío
MAXIMO MORENO MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música Máximo Moreno de Galdakao
ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música Andrés Isasi de Getxo
LEIOAKO MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música de Leioa
SANTOS INTXAUSTI MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música Santos Intxausti de Mungia
UNANUETAR PEDRO MARI MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música Pedro Mari Unanue de Ondarroa
SANTURTZI MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música de Santurtzi
VICTOR MIRANDA ZUAZUA MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música Vistro Miranda Zuaza de Sestao
TRAPAGARAN MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música de Trapagarán
ANDOAINGO MUSIKA ESKOLA	Esceualde Música de Andoain
LOINAZKO MUSIKA ESKOLA	Escuela de Músic Loínaz de Beasain
DEBA MUSIKAL	Deba Musikal de Deba
DONOSTIAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián
ERRETERIA MUSIKAL	Erretería Musikal de Rentería
HERNANI MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música de Hernani
IRUNGO MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música de Irún
TOMAS GARBIZU MUSIKA ESKOLA	Esceula de Música Tomás Garbizu de Lezo
DANBOLIN MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música Danbolin de Orío
EDUARDO MOCOROA MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música Eduardo Mocoeroa de Tolosa
LOURDES IRIONDO MUSIKA ESKOLA	Escuela de Música Lourdes Iriono de Urmieta
LUIS ARAMURU UDAL MUSIKA ESKOLA	Escuela Municipal de Música Luis Aramburu de Vitoria-Gasteiz